

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko irailaren 25eko erabakia, Kontratazio Mahaiko idazkari berria izendatzeari buruzkoa

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 326. artikulua xedatzen duenaren arabera, kontratazio-mahaiaren berezko zeregina da kontratazio-organoari laguntzea kontratuak esleitzen, prozedura irekietan, ireki laburtuetan, murriztuetan, lehia-elkarriketaren bidezkoetan, berrikuntzarako elkarteetan eta lege horretako 168. artikuluan aipatzen diren publikitadedun prozedura negoziatuetan. Orobat xedatzen du hauek osatuko dutela mahaia: lehendakariak, kideek (erregelamendu bidez zehaztuko da zenbat izango diren) eta idazkari batek, eta kontratazio-organoak izendatuko dituela mahaikideak.

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 127. artikulua —Tokiko Gobernu Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen 57/2003 Legean emandako idazkuntzan— Tokiko Gobernu Batzarrari aitortzen dizkio kontratazio-eskumenak. Beraz, hori da kontratazio-organoa, artikulua beraren 2. paragrafoaren arabera eskumen horiek eskuordetzeko aukera gorabehera.

Biztanle kopuru handia duten udalerrietan Tokiko Gobernu Batzarrak ditu kontratazioaren alorreko eskumenak, kontratuaren zenbatekoa edo iraupena edozein izanik ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen bigarren xedapen gehigarriak —“Toki-erakundeetarako kontratazio arau bereziak” — 4. paragrafoan xedatutakoaren ildotik. 7. paragrafoaren arabera, berriz, kontratazio-mahaiko buru korporazioko kide bat edo funtzionario bat izango da; mahaikide izango dira korporazioko idazkaria edo, hala behar duenean, korporazioari aholkularitza juridikoa emateko eginkizuna duen organoaren titularra, eta kontu-hartzailea, baita kontratazio-organoak izendatutako beste batzuk ere, funtzionarioen, lan-kontratuko langileen edo zinegotzien artean aukeratuta; kopurua, guztira, ez da hirutik beherakoa izango. Kontratazio mahaian dauden hautetsiak ezingo dira kide guztien herena baino gehiago izan. Mahaiaren idazkaria korporazioko funtzionario bat izango da.

Kasu honetan, hutsik geratu da Kontratazio Mahaiko idazkari titularren postua, eta, horrenbestez, beste pertsona bat izendatu beharra dago, Kontratazio Mahaiko idazkari titularren zereginak bere gain har ditzan.

Mahaiaren gainerako osaera —titularrei nahiz ordezkoei dagokienez— bere horretan geratzen da.

Horrenbestez, erabaki-proposamen hau egiten dio alkate lehendakariak Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena. Cristina Cameno Argote izendatzea Kontratazio Mahaiko idazkari titular, Ana González Galaz andrearen ordezkari.

Bigarrena. Erabaki hau hartu den egunean bertan jarriko da indarrean, ALHAOn eta Udalaren webgunean zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailaren 25ean

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE